

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Letabide

Donostia hiri bat izan arren, handia gainera, hainbat alde eta inguru ezezagun ditu, horien artean bere mendiak, eta zehazkiago Zubieta herriko mendiak. *Zubieta-mendiak* deiturikoak zabalak dira oso. Beren mugak Usurbil, Zizurkil, Andoain (Sorabilla) eta Lasarterekin dituzte. Mendi hauek ezagutzeko, bertara joateko *Letabide*-tik dugu sarrera nagusia, benetako eskaratza esango genuke. *Letabidera* joateko Zubietako plazatik, Santiago elizaren ondotik, abiatu behar gara. Biderik politena *Berridi* baserri ederraren ondotik doa. *Gazteluko* gaina pasatu ondoren *Amezti* deituriko mendia zeharkatuz iritsiko gara *Letabidera*. *Letabide* lepo bat da, eta bertatik hainbat bide ateratzen da *Zubieta-mendietan* sartzeko: ezker aldera hartzen badugu *Maikutzeta* eta *Txaldatxur* mendietara joango gara. Zuzenean bidean gora abiatzen bagara, *Simolako* estratan barrena joango gara *Arkutxara* heltzen garelarik. Arkutxan bada historiaurreko hilobi jakingarri bat, ikusi nahi badugu. Bidea jarraitu eta *Olaiko* gainera helduko gara. Hemen ere bada beste hilobia, «Kantoposantuzarra» edo trikuharri polit bat. *Olaiko* mendia - *Olaiko iturri*, *Olaiko berri*, *Olaiko gaina* eta *Olaiko zar* deitua- oso ederra zen garai batean, baina gaur zoritxarrez



Letabidetik Arkutxarako bidean. Simolako estratua.



Arkutxako trikuharria.



Olaiko-gainako trikuharria.

dena sasiz betea da, hainbat sute pasatu ondoren traketua. Gure mendiak herriko arimaren zati bat dira; gure hizkuntza min-

tzatzen dute, mendiak maitatuz gure herria maitatuko dugu!

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE

La Casa
del Café

- Juan Iriondo S.A. -
DONOSTIA

